EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORRAREN, BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN ETA PARQUE TECNOLÓGICO/ TEKNOLOGI ELKARTEGIA SA-ren ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENA ALDATZEKO AKORDIOA, EZKERRALDE/MEATZALDEKO PARKE TEKNOLOGIKOKO SARBIDEA EGOKITU, URBANIZAZIOAREN LEHENENGO FASEA EGIN ETA HORNITUTAKO ERAIKIN BAT ERAIKITZEKO

ACUERDO DE MODIFICACIÓN DEL CONVENIO DE COLABORACION ENTRE LA ADMINISTRACION GENERAL DE LA COMUNIDAD AUTONOMA DEL PAÍS VASCO, LA DIPUTACION FORAL DE BIZKAIA Y EL PARQUE TECNOLOGICO S.A. PARA LA EJECUCION DE LA ADECUACION DE ACCESO, PRIMERA FASE DE URBANIZACION, Y LA CONSTRUCCION DE UN EDIFICIO EQUIPADO DEL PARQUE TECNOLOGICO EZKERRALDEA/ MEATZALDEA

Vitoria-Gasteiz, 2021eko otsailaren 11n.

En Vitoria-Gasteiz, a 11 de febrero de 2021

BILDU DIRA

REUNIDOS

Alde batetik,

De una parte,

Mª ARANTZA TAPIA OTAEGUI andrea, Ekonomiaren Garapen eta Azpiegituretako sailburua, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren izenean eta ordezkaritzan, Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburua izendatzeko Lehendakariaren azaroaren 26ko 27/2016 Dekretuaren bidez egindako izendapena dela bide, eta Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren egitura organiko eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 11ko 74/2017 Dekretuan ematen zaizkion eskumenak baliatuz.

Dña. Mª ARANTZA TAPIA OTAEGUI, Consejera de Desarrollo Económico e Infraestructuras, en nombre y representación de la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi, en virtud de su nombramiento realizado mediante Decreto 27/2016, de 26 de noviembre, del Lehendakari, de nombramiento de la Consejera de Desarrollo Económico e Infraestructuras y en uso de las funciones atribuidas en el Decreto 74/2017, de 11 de abril, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Desarrollo Económico e Infraestructuras.

PEDRO MARÍA AZPIAZU URIARTE jauna, Ogasun eta Ekonomiako sailburua, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren izenean eta ordezkaritzan, Ogasun eta Ekonomiako sailburua izendatzeko Lehendakariaren azaroaren 26ko 30/2016 Dekretuaren bidez egindako izendapena dela bide, eta Ogasun eta Ekonomia Sailaren egitura organiko eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 13ko 166/2017 Dekretuan ematen zaizkion eskumenak baliatuz

D. PEDRO MARÍA AZPIAZU URIARTE, Consejero del Departamento de Hacienda y Economía, en nombre y representación de la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi, en virtud de su nombramiento realizado mediante Decreto 30/2016, de 26 de noviembre, del Lehendakari, de nombramiento del Consejero de Hacienda y Economía y en uso de las funciones atribuidas en el Decreto 166/2017, de 13 de junio, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Hacienda y Economía.

Bestetik,

De otra parte,

AINARA BASURKO URKIDI andrea, Ekonomia Sustatzeko Saileko foru diputatuak, Bizkaiko Foru Aldundiaren izenean eta haren ordezkari gisa, Ahaldun Nagusiaren uztailaren 1eko 102/2019 Foru Dekretuaren bidez (foru diputatuen izendapena xedatzen duena) egindako izendapena baliatuz.

Dña. AINARA BASURKO URKIDI, Diputada del Departamento Foral de Promoción Económica, en nombre y representación de Diputación Foral de Bizkaia, en virtud de su nombramiento, realizado mediante Decreto Foral 102/2019, de 1 de julio, del Diputado General por el que se dispone el nombramiento de diputadas y diputados forales.

Bestetik, Parque Tecnológico/Teknologi Elkartegia, SAren izenean eta ordezkaritzan,

JAVIER ZARRAONANDIA ZULOAGA jauna, presidente gisa, Manuel López Pardiñas Bilboko notario jaunaren aurrean 2016ko abenduaren 20an emandako ahalordeari esker (protokoloko 3.413 zenbakia).

De otra parte, en nombre y representación del Parque Tecnológico, S.A.

D. JAVIER ZARRAONANDIA ZULOAGA, en calidad de Presidente conforme al poder otorgado ante notario de Bilbao D. Manuel López Pardiñas con fecha 20 de diciembre de 2016, y signada con el nº 3.413 de su protocolo.

## AZALTZEN DUTE

1. 2019ko otsailaren 22an Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren, Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Parque Tecnológico/Teknologi Elkartegia SAren arteko lankidetza-hitzarmena sinatu zen, Ezkerralde/Meatzaldeko Parke Teknologikoko sarbidea egokitu, urbanizazioaren lehenengo fasea egin eta hornitutako eraikin bat eraikitzeko.

2. 2020ko martxoaren 13an Hitzarmena Aldatzeko Akordioa sinatu zen.

3. Hitzarmena Ezkerralde/Meatzaldeko Parke Teknologikoa eraikitzeko interes orokorraren barruan kokatzen da. Epe luzeko proiektua da, eta bere helburua da A-8 eta N-639 foru-errepideak egokitzea (aurrerantzean “Sarbidea egokitzea”), Ezkerralde/ Meatzaldeko Parke Teknologikoko urbanizazioaren lehenengo fasea egitea eta hornitutako eraikin bat eraikitzea, bai eta aldeek onartutako baldintzak eta konpromisoak zehaztea ere.

4. Hitzarmenaren bigarren klausulako 2.4 puntuan aipatzen denez, ekintza horietarako kalkulatu den kostu osoa Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren, Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Teknologi Elkartegiaren ekarpenekin finantzatuko da.

   2019ko otsailaren 22an sinatutako hitzarmena eta 2020ko martxoaren 13an sinatutako aldaketa akordioaren terminoekin bat etorrita, honako hauek dira alde bakoitzak hitzarmen honen xede diren ekintzak finantzatzeko jarri beharreko zenbatekoak, urterokoen arabera antolatuta:

## EXPONEN

1. Que, con fecha 22 de febrero de 2019, se suscribió el Convenio de Colaboración entre la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi, la Diputación Foral de Bizkaia y el Parque Tecnológico/Tecnologia Elkartegia SA, para la ejecución de la adecuación de acceso, primera fase de urbanización, y la construcción de un edificio equipado del Parque Tecnológico Ezkerraldea/Meatzaldea.

2. Que con fecha 13 de marzo de 2020, se suscribió un Acuerdo de Modificación del citado Convenio.

3. Que el citado Convenio se enmarca en el interés general de la construcción del Parque Tecnológico de Ezkerraldea/Meatzaldea, que constituye un proyecto a largo plazo, si bien la finalidad del mismo se circunscribe a la adecuación de las carreteras forales A-8 y N-639 (en adelante “Adecuación acceso”), la primera fase de urbanización y la construcción de un edificio equipado del Parque Tecnológico de Ezkerraldea/ Meatzaldea, así como establecer las condiciones y compromisos que asumen las partes.

4. Que en el punto 2.4 de la cláusula Segunda del Convenio se hace referencia a que el coste total estimado de las actuaciones se financia con aportaciones de la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco, la Diputación Foral de Bizkaia y el Parque Tecnológico.

   De conformidad con los términos del Convenio suscrito el 22 de febrero de 2019, y del acuerdo de modificación suscrito el 13 de marzo de 2020, dispuestas por anualidades, las cuantías que cada una de las partes iban a destinar a financiar las actuaciones objeto de este convenio eran las que se contemplan a continuación:

| FINANTZAKETA / FINANCIACIÓN | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 | 2022 | GUZTIRA / TOTAL |
|---|---|---|---|---|---|---|
| EJ / GV | 0 | 0 | 2.090.750 | 6.000.000 | 7.457.750 | **15.548.500** |
| BFA / DFB | 0 | 0 | 2.090.750 | 8.058.000 | 7.457.750 | **17.606.500** |
| BZTP / PCTB | 7.218.100 | 10.000.000 | 8.781.900 | 1.281.000 | 0 | **27.281.000** |
| | | | | | GUZTIRA / TOTAL: | 60.436.000 |

5. Proiektua konplexua denez, exekuzioan aurrekontuarekiko desbideratzeak, eta administrazio epeak eta lanen antolaketa direla medio, hitzarmenean hasieran aurreikusitako plangintza berrikusi eta egokitu behar izan da; bidenabar, administrazio sinatzaileen ekarpenak ere moldatu egin behar izan dira finantzaketa beharrizanak kontuan hartuz.

6. Ondorioz, bigarrenez aldatu egin da 2019ko otsailean sinatutako hitzarmena.

7. Seigarren klausulan, "Hitzarmena aldatzeko erregimena" izenekoan, zehazten da hitzarmena aldeen arteko adostasunez aldatu ahal izango dela, hori beharrezkoa denean xedea hobeto betetzeko. Horretarako, hitzarmena sinatzeko erabili ziren izapide berberak bete beharko dira.

5. Que la complejidad y dimensión del proyecto en su conjunto, desviaciones al presupuesto durante la ejecución, así como el hecho de que la construcción del edificio equipado necesariamente deba realizarse posteriormente a la construcción de los accesos y de la urbanización del Parque Tecnológico Ezkerraldea/ Meatzaldea, ha hecho necesario realizar una nueva estimación de los importes asignados a cada anualidad.

6. Que, por este motivo, se plantea una segunda modificación del convenio firmado en febrero de 2019.

7. Que, en la cáusula sexta, referente al "Régimen de modificación del convenio", se especifica que el citado convenio podría modificarse por mutuo acuerdo cuando resulte necesario para la mejor realización de su objeto, debiendo seguirse para ello los mismos trámites establecidos para su adopción.

Azaldutakoa betez, aldeek, elkarri aitortu ondoren legezko gaitasun nahikoa dutela jarduketa hau egiteko, eta dituzten ordezkaritzak baliatuta, administrazio-izaerako hitzarmen hau sinatzen dute, ondorengo klausulekin:

En virtud de lo expuesto, las partes, reconociéndose capacidad legal suficiente para este acto, y en la representación que ostentan, suscriben el presente Convenio de naturaleza administrativa, con las siguientes

## KLAUSULAK

**Lehenengoa.-** Bigarren klausulako ("Aldeek hartutako betebehar eta konpromiso ekonomikoak") 2.4 apartatua aldatu da, eta honela geratu da idatzita:

"Bizkaiko Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzak eta Parque Tecnológico/ Teknologi Elkartegia Sak honako zenbateko hauek emango dituzte jarduketak finantzatzeko:

## CLÁUSULAS

**Primera.-** Se modifica el apartado 2.4 de la cláusula segunda, "Obligaciones y compromisos económicos asumidos por las partes", que quedará redactado en los siguientes términos:

"Las cuantías que la Diputación Foral de Bizkaia, Gobierno Vasco y Parque Tecnológico/ Teknologi Elkartegia S.A. destinarán a financiar las actuaciones son las siguientes:

| FINANTZAKETA / FINANCIACIÓN | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 | 2022 | 2023 | GUZTIRA / TOTAL |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| EJ / GV | 0 | 0 | 350.000 | 5.242.000 | 7.234.000 | 3.098.210 | **15.924.210** |
| BFA / DFB | 0 | 0 | 2.090.800 | 5.662.052 | 7.234.000 | 3.098.210 | **18.085.062** |
| BZTP / PCTB | 7.218.100 | 10.000.000 | 8.781.900 | 1.281.000 | 1.984.525 | 0 | **29.265.525** |
| | | | | | GUZTIRA / TOTAL: | GUZTIRA / TOTAL: | 63.274.797 |

**Bigarrena.-** Bere horretan geratu da 2019ko otsailaren 22an Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren, Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Parque Tecnológico / Teknologi Elkartegia SAren arteko lankidetza-hitzarmenaren gainerako testua, Ezkerralde/Meatzaldeko Parke Teknologikoko sarbidea egokitu, urbanizazioaren lehenengo fasea egin eta hornitutako eraikin bat eraikitzeko.

**Segunda.-** Se mantiene, en sus mismos términos, el resto del texto del Convenio de Colaboración suscrito, el 22 de febrero de 2019, entre la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi, la Diputación Foral de Bizkaia y el Parque Tecnológico/Tecnologia Elkartegia SA, para la ejecución de la adecuación de acceso, primera fase de urbanización, y la construcción de un edificio equipado del Parque Tecnológico Ezkerraldea/ Meatzaldea.

Eta ezarritakoarekin ados daudela adierazteko, alderdiek hitzarmen hau formalizatzen eta sinatzen dute, goiburuan adierazitako tokian eta egunean.

En prueba de conformidad con lo establecido, se formaliza y firma el presente convenio, en el lugar y fecha indicados en el encabezamiento.

Eusko Jaurlaritza
Gobierno Vasco

Dña. Arantza Tapia Otaegi and.
Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburua
Consejera de Desarrollo Económico e Infraestructuras

Eusko Jaurlaritza
Gobierno Vasco

D. Pedro María Azpiazu Uriarte jn.
Ogasun eta Ekonomiako sailburua
Consejero de Hacienda y Economía

Diputación Foral de Bizkaia
Bizkaiko Foru Aldundia

Dña. Ainara Basurko Urkiri and.
Bizkaiko Foru Aldundiko Ekonomi Sustapen Saileko Foru-Diputatua
Diputada del Departamento Foral de Promoción Económica de la Diputación Foral de Bizkaia

Teknologi Elkartegia, S.A.
Parque Tecnológico, S.A.

D. Javier Zarraionandia Zuloaga jn.
Parque Tecnológico/Teknologi Elkartegia, SAren izenean eta ordezkaritzan
En nombre y representación del Parque Tecnológico S.A.